



15. AKTA

2004ko abenduaren 24an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila lauko abenduaren hogeita lauan.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucia Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 9,00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 12. eta 13. 04-11-23 eta 04-11-25ekoak, hurrenez hurren, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokien akta-liburura transkribatzea.

2.- "El Poblado Eskoletako fatxada birgaitzea" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "El Poblado Eskoletako fatxada birgaitzea"

Obra-zuzendariak: Jose Joaquin Michelena j.

BIDASOA IGELTSERITZA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA SEI MILA EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (26.147,37 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1012/04 Disposamenduaren kargura.

3.- "El Poblado Eskoletako estalkia berritzea" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "El Poblado Eskoletako estalkia berritzea"

Obra-zuzendariak: Jose Joaquin Michelena j.

BIDASOA IGELTSERITZA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA ZENTIMO BAT (29.223,01 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1011/04 Disposamenduaren kargura.

4.- "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea" obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j.

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN ETA LAROGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (50.586,47 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

5.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 7. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 7

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea "

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA LAROGEITA HAMALAU ZENTIMO (39.372,94 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

6.- "Bizkaia Plaza urbanizazioaren" obraren 5. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 5

Obra: "Bizkaia Plaza urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez Celaya a. (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (156.739,56 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-509/04 eta D-510/04 Disposamenduen kargura.

7.- Diru-laguntzen banaketa: Sustapen programa herri mailan: Emakumea, prebentzioa eta gizarteratzea, herri mailakoa. Jubilatuen etxeentzako dirulaguntzaren banaketa.

2004ko dirulaguntzetarako aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren eta Gizartekintza teknikariaren txostena ikusi eta gero, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENA.- Diru-laguntza hauek banatzea.

• **Partidaren izena: Sustapen programa herri mailan. Zk. 044813135001**

- Emakumea

< Itsasoalde.....901,52 euro
< Lagun Artea.....1.202,02 euro
< Azkuene..... (lokalak, azpiegiturak.....).....1.502,53 euro

- Prebentzioa eta gizarteratzea

< Ascodel.....1202 euro
< Ekintza da salud..... 300 euro
< A.Zimentarri..... 420 euro
< Arrats..... 450 euro
< Fundación Izan. Norbera.
.....1202 euro

- Herri mailakoa

< Acabe..... 240 euro
< Alcer..... 240 euro
< ACCU..... 240 euro
< Agipase..... 751 euro
< Ortzadar..... 450 euro
< Donantes de sangre.....1202 euro
< Esclerosis múltiple..... 240 euro
< Atzegi..... 390 euro

• **Partidaren izena: Jubilatuen etxeentzako udal diru-laguntza. Zk: 044814561003**

-Hirugarren Adina

<Preinca 811 euro



- **Partidaren izena: Garapenerako lankidetzeta-programa Zk: 044813135002**

< Mugen Gaietik. Proiektua “Emakumeen osasunerako heziketa Zakatekoluka eta Tekoluka herrialdeetan”...San Vicente (El Salvador).....1803 euro

< A.D.E.C.Proiektua “ 76 etxe birgaitzeko proiektua, George urakanaren ondorioz, larrialdi egoeran gelditu diren familientzat” Republica Dominicana.....1803euro

< Taupadak.Proiektua. Energia-irtenbide gisa biogasa ekoizteko proiektua”. Boliviako Amazonia... 1803 euro

< Manos Unidas. Proiektua. “Lanbide heziketarako eraikina egitea”. Peru..... 601 euro

< Nazioarteko elkartasuna. Proiektua. Osasun larrialdietarako laguntza Gazako Franjan.....601euro

< Rumanalde. Proiektua. “Adingabego errumaniarrentzako aldi bateko harrera familiak”..... 601 euro

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

8.- Interruptus antzerki taldeari ezohiko subentzioa ematea bere X. urteurrenarengatik.

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2004ko azaroaren 25ean egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzieren aho batez

E R A B A K I D U

LEHENA.- Interruptus Antzerki Taldeari bere X. Urteurrena ospatzeko egindako aste kulturala dela eta 450 euroko ezohiko dirulaguntza ematea.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1573/04 Baimenduaren kargura.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

9.- Gabonetako Haur Jaia egiteko Aisialdi taldeei subentzioa ematea.

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2004ko azaroaren 25ean egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzieren aho batez

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren Aisialdi Taldeei 2004ko Gabonetako Haur Jaia egiteko dagozkien dirulaguntzak ematea:

TXIMISTA.....	1.479,20 euro
EKAITZA.....	1.123,20 euro
BOVEDA.....	1.123,20 euro
IÑALKIÑE (Abaraska).....	1.030,72 euro
TXIKI TXOKO.....	1.030,72 euro
ZIRIPOTZ	1.479,20 euro
	7.266,24 euro
GUZTIRA.....	

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1572/04 Baimenduaren kargura.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

10.- Dirulaguntzen banaketa: UDA 2004 kanpaina.

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2004ko azaroaren 25ean egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENA.- Uda 2004 Kirol Kanpainaren barruan, ondoren aipatzen diren Kirol Elkarteei dagokien dirulaguntzak ematea:

- KOXTAPE-PIRAGÜISMO	1.809,00 euro
- CLUB ATLETICO TRINTXERPE	2.112,00 euro
• Piragüismo.....	1.728 euro
• Mountain-bike.....	384 euro
- DONIBANE ESKUBALOA	134,87 euro
	4.055,87 euro
GUZTIRA	

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1581/04 Baimenduaren kargura.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

11.- 2004 urteko kirol dirulaguntzak.

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2004ko abenduaren 20an egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENA.- Jarraian aipatzen diren elkarteei ondorengo dirulaguntzak ematea:

PASAIKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK 2004

ELKARTEA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA
	2004	2004
1. Jaizkibel Mendi Taldea	51,5	1584,18
2. SCRD Donibane	63,5	1953,31
3. CD Pasajes	50,5	1553,42
4. Pasaiaiko Trintxer Hockey	71	2184,02
5. Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkartea	144	4429,56
6. CD Trintxerpe-Azkuene	74	2276,30
7. Sanpedrotarra Futbol Elkartea	54	1661,08
8. Pasai Antxio Txirrindulari Elkartea	40,5	1245,81
9. Club Atlético Illumbe	67	2060,97
10. Onintza Kirol Elkartea	27	830,54
11. Sanpedrotarra Arraun Elkartea	85	2614,67
12. Usoa Ehiza Elkartea	37	1138,15
13. Grupo de Montaña "Itsastarrak"	56	1722,61
14. Itsas Mendi K-E.	52	1599,56
15. Galepertarrak	47	1445,76
16. Donibane Eskubaloia	51	1568,80
17. Pasaiaiko Kulixka Ehiza Kirol Elkartea	43	1322,71
18. Trintxer Mendi Taldea	51	1568,80
19. Club Atlético Trintxerpe	103,5	3183,74
GUZTIRA	1.168,50	35.944

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1580/04 Baimenduaren kargura.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

12.- Urteko gazte diru-laguntzak banatzea.

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2004ko abenduaren 17an egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U



LEHENA.- Urteko gazte jardueretarako ondorengo dirulaguntzak onartzea:

EKAITZA AISIALDI TALDEA	1.895,90 Euro
BOVEDA AISIALDI TALDEA	4.213,70 Euro
TXOLARTE A.TALDEA (ATZEGI)	1.877,92 Euro
TXIMISTA AISIALDI TALDEA	1.480,73 Euro
ZIRIPOTZ AISIALDI TALDEA	450,00 Euro
TXISKALI AISIALDI TALDEA	521,32 Euro
INTERRUPTUS A. TALDEA	3.862,19 Euro
GUZTIRA	<hr/> 14.301,76 Euro

Todo ello con cargo al Autorizado A-1571/04 del presupuesto municipal vigente.

BIGARRENA.- Kanpamenduetarako ondorengo dirulaguntzak onartzea:

GRUPO T.L. EKAITZA	4.875,12 Euro
GRUPO T.L. BOVEDA	4.207,00 Euro
GRUPO T.L. GAZTE TALDE	430,00 Euro
GUZTIRA	<hr/> 9.512,12 Euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1570/04 Baimenduaren kargura

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

13.- Obra-baimena Donibane, 33.

Josetxo Arrizabalaga Altunak 2004ko urriaren 25ean Donibane, 33. Zk.ko solairuardean dagoen balkoia konpontzeko baimena eskatu zuen; halaber, balkoia handitzeko baimena ere eskatu zuen, espazio kontuengatik.

Eraikin hori hirigune historikoko egoitzaldean dago eta beraz, Hirigune Historikoak Birgaitzeko Plan Berezia aplikatzekoa da.

Udal arkitektoak balkoia handitzearen aurkako txostena egin du.

Eraikinaren hirigintza-fitxak, besteak beste, ondokoa adierazten du:

“(…)

- *Eraikinaren kodea: ID-33.*

- *Gradua: NPc. berariaz balio arkitektonikorik ez duen eraikina, baina tipologia egokiarekin eta bolumen eta altuera ingurune historikoarekin bat datorrena.*
- *Baimentzen diren ekintza orokor motak: iraunarazpena eta apainketa, gotortzea, berriztatzea eta ordezkatzea.*
- *EGOKITU BEHARREKO ELEMENTUAK: goiko balkoi jarraituetako barandak.*

(...)"

HHBPBak ondokoa ezartzen du balkoien neurriei buruz:

8.2.3.BALKOI KORRITUETAKO IRTENEN ETA BALKOIEN NEURRI ETA EZAUGARRIAK.

Balkoiak edo balkoi korrituak gehienez 1,00 m irtengo dira fatxadaren planoarekiko. Banakako balkoiek edo zenbait hutsune multzokatzen dituztenak, fatxadaren planoarekiko gehienez 50 cm atera daitezke.

Irtena ezingo da inoiz egin solairuko forjaketa irtetearen bitartez.

Irtenak egiteko ondorengo irtenbideak onartzen dira:

a)Harrizko, hormigoizko edo harri artifizialeko elementuekin. Dena dela, hasten denean, lodiera ezingo da 20 cm baino handiagoa izan eta moldurazioaren bitartez egingo da. Horren lodiera murriztuz joango da eta errematearen aurrealdean ezingo ditu 8 cm-ak gainditu.

b)Metalezko profilak dituzten bastidoreen bidez. Aurrealdearen zabalera ez da 8 cm-tik gorakoa izango.

Baranden materialei dagokionez, berriz, ondokoa adierazten du:

“8.3.3.Fatxada-hutsuneetako arotzeria.

(...)

2.Materialak eta bukatuak.

Arotzeriak hurrengo material eta bukatuekin egin daitezke:

a)Egur esmalteztatuan edo agerian.

b)Metalezko profilakatu edo esmalteztatuetan.”

Bestalde, proposatu duten moduan balkoia handitzeak etxebizitzaren aprobetxamendua ere handituko luke eta hori ez dago baimenduta.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Josetxo Arrizabalaga Altunari lizentzia **ukatzea**, Donibane, 33. zk.ko solairuarteran dagoen balkoia handitzeko; izan ere, etxebizitzaren aprobetxamendua handituko litzateke eta hori ez dago baimenduta.

BIGARRENA.- Terraza eta barandaren konponketari dagokionez, egin nahi dituzten lanen aurrekontua aurkeztu behar dute. Baranda berriaren material eta ezaugarriek HHBPBn ezarritakoa bete behar dute eta komunitatearen akordioa aurkeztu behar dute, eraikinaren barandak bateratzeko konpromisoa jasotzen duena.

HIRUGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

LAUGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

14.- Jarduera lizentzia Jaizkibel mendian.

Mahai gainean geratu da espediente hau, zeren eta interesatuak aurretik eskatu behar baitu nekazaritza jarduera jada badagoela justifikazioa eskatzen duen momentuan arauak onartu ahal izateko.

15.- Askorreta Ontziola ohian ur-bilketarako instalazio pilotua jartzeko eskaera.

Xabier Goirigolzarrik, AZTI arrantza institutu teknologikoaren izenean, baimena eskatu du Askorretako egungo instalazioetan 400 m²ko instalazio pilotua jartzeko; 12 m-ko sakoneran ura bildu eta behin-behinean tanke mugikorretan gordetze aldera, gehienez ere 4-6 hilabetetan.

Pasaiako Arau Subsidiarioetako Ordenantza Orokorrek 30. artikuluan lizentzia behar duten jarduketak xedatzen ditu:

“b) Jarduerak ezarri, transmisioak egin edo Titulartasuna aldatzea.

(...)

p) Lur mota oro ibilgailu, tresneria, material edo beste zenbait elementuren biltegi edo gordailu gisa erabiltzea.”

Eremu horretako hirigintza-fitxak ondokoa adierazten du ontziola-jarduera jada amaitua denerako: “onartutako erabilera bakarrak izango dira edo Ekipamendu Komunitarioak berezkoa duena edo berezko horretatik eratortzen direnak”.

Eskatu duten jarduera sailkatua 400 m²ko azalera batean jarri nahi dute.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- AZTIri baimena ukatzea Askorreta ontziola ohian ur-bilketarako instalazio pilotua ezartzeko, eremu horretan ez direlako erabilera horiek onartzen.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.



16.- Ondaren erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Juan Rodil Pérez jaunak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik Trintxerpeko azokako 8. postuaren titularrak, Urdaitegia duen JUAN RODIL PEREZ jaunak aurkeztu erreklamazioa, Udalari 211,10 euro eskatuz elikagaiak galdu dituelako 2004ko irailaren 15ean Azokako frigorifikoak ez funtzionatzeagatik izandako galeragatik alegia. (Eskaerarekin batera dator merkantziaren balorazioa).

Ikusirik Zerbitzu Departamenduko buruak luzatu txostena, non frogatzen baitira gertatuak.

Ikusirik kalteen zenbatekoak ez duela Erantzukizun Zibil Orokorraren polizan ezartzen den frankizia gaintitzen, Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JUAN RODIL PEREZ jaunak egin erreklamazioa ONTZAT EMAN eta 211,10 euro abonatzea indarreango udal aurrekontuko A-1659/04-en kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

B) Juan Karlos Romero Estanga jaunak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik JUAN KARLOS ROMERO ESTANGA jaunak egin erreklamazioa SS-5.037-BH matrikula duen ibilgailuan izandako kalteak direla eta, motorreko karterra puskatu zitzaielako, gurpila txorko batean sartu zuelako, 2004ko urriaren 10ean, Oarso kaleko 15. zenbakiaren parean, urbanizazio-lanetan aurkitzen zelarik.

Eta ikusirik aurrekariak eta gainerako dokumentazioa, espedientean agertzen dena, Toki Gobernuaren Juntako bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JUAN KARLOS ROMERO ESTANGA jaunak egin erreklamazioa GAITZESTEIA ondorengo arrazoietan oinarrituz:

1.- Hau gertatu zen kalea obratan dago uztailaz gero eta, beraz, erreklamatzailerak honenbeste jakin behar zuen bere etxetik gertu dagoelako (Oarso, 17).



2.- Obren egoera ikusita ez zen lekurik onena aparkatzeko.

3.- Kalteak ez dira Administrazioak emandako aginduren batez gertatu, ezta proiektuaren ondorioz ere.

BIGARREN.- Honela bada, enpresa kontratistari egin beharko dio erreklamazioa Construcciones OZIO, S.A., Añorga Txiki kalea, 14, 1º B, Donostia.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

C) Pilar Hoces Moreno andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik **PILAR HOCES MORENO andreak** aurkeztu erreklamazioa Udalari 227,46 euro eskatuz **SS-6.395-BH** matrikula duen ibilgailuaren radiadorean izandako kalteak direla eta, Pasai Antxoko Beissier fabrikaren orubean estalkirik gabe zegoen estoldan atzeko gurpil bat sartu zuelako, parkin bezala gaitua zegoelako.

Eta ikusirik Udaltzaingoak luzatu duen txostena eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa, eta halaber autoa ateratzen lagundu zion lekukoaren testigantza, Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKIDU

LEHENENGO.- **PILAR HOCES MORENO** andreaki 227,46 euro ordaintzea KUTXako 0105729065 k/kan A-1562/04ren kontura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

D) Santos Celemín Albillos jaunak egingako ondare erreklamazioa.

Ikusirik **SANTOS CELEMIN ALBILLOS** jaunak Udalari aurkeztu erreklamazioa 409,94 euroko kantitatea 2004ko martxoaren 2an bere etxebizitzako horma eta zoruan izandako kalteak direla eta, Azkuenen kaleko 22, 1. 3. atea, kaleak garbitzeko ura sartu zitzaizolako Ulia etorbidean, ura botaz kalera.

Eta ikusirik Udaltzaingoak luzatu txostenak Zerbitzuen Departamenduko Arduradunarena, Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez,



ERABAKI DU

LEHENENGO.- SANTOS CELEMIN jaunari 409,94 euro ordaintzea A-1234/04ren kontura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkioken errekurtsioekin.

E) Jaizkibel, 4ko Jabekideek egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik JAIZKIBEL KALEKO 4KO JABEKIDEEK egin erreklamazioa hoderia debuxatzean izandako kalteak direla eta urteetan hustubidearen hoderia orokorrean izandako hainbat buxaduragatik eta ikusirik Zerbitzuen Departamenduak luzatu duen txostena, Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Aurkezturiko erreklamazioa gaitzestea hurrengo arrazoiak direla eta:

1.- Kalta hau ezin zaio udalari leporatu bere funtzioak normal edo anormal betetzeagatik, baizik eta erreklamatzailiek berek dioten bezala eta Zerbitzuen departamenduak horrela berresten du, Udalarekin zerikusirik ez dutenek eraginak dira, hauekin kontratu-erlaziorik ez duelako.

2.- Udalak partikularrei ematen dizkien obrak hirugarrenen eskubidearen kalterik gabekoak izan ohi dira, eta beraz, ezin zaizkio Udalari leporatu partikular batek eragin ditzakeen kalteak obrak burutzean.

3.- Dena dela, Administrazioaren ondare erreklamazioaren preskripzioa jada gauzatuko zatekeen gertatuak izan eta urtebete baino gehiago igaro delako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei jakitera ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

F) M^a del Coro Vidal Maneiro andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik MARIA DEL CORO VIDAL MANEIRO, JON GOMEZ VIDAL adinez txikiaren amak egin erreklamazioa 2003ko abenduaren 22an Donostiako Luzuriaga faktoria zaharraren eraikinaren



hirugarren eta bigarren solairuen artean dagoen zulo batean erorita izandako lesio eta ondorioengatik, Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MARIA DEL CORO VIDAL MANEIRO andreak formulatu erreklamazioa gaitzestea aipatu eraikina ez delako udalaren titularitatekoa.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkioken errekursoekin.

17.- Diziplinazko espedientea.

Espediente honek babestu behar diren datu pertsonalak ditu.

- Gai-zerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sartzea aurrez berretsi ondoren, honako akordio hauek hartu dituzte:

18.- -Abaraska Euskara Elkarteari dirulaguntza.

Euskara Informazio Batzordeak 2004ko abenduaren 14an egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- ABARASKA EUSKARA ELKARTEARI, 2004. urteko bere egitasmoa garatzeko 1.812,27 euroko dirulaguntza ematea.

Hau guztia 10-481-455-10-01 “euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partida eta indarreango udal aurrekontuko A-1678/04 Baimenduaren kargura.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekursoen berri ematea.

19.- Salinas kaleko 6. behean pasabidea jartzeko eskaera.

Florentino Entenza Lobeira jn.ak 2004-11-16an udalak eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu zuen, Salinas, 6-behea, ezk.an dagoen lokalean ibilgailuen gordelkua jartzeko jarduera-lizentzia (behin-behinekoa) eta lokala egokitze obra-lizentzia eskatu zituela eta.

Eskatutako jarduera kaltegabea da; izan ere, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak (azaroaren 30eko 2414 Dekretua) xedatzen du araudiak ez dituela barne hartzen 100m² baino gutxiagoko lokalak.

Eskatutako jarduera bat dator Pasaian indarrean dagon araudian egiten den sailkapenarekin, hiri-lur gisa sailkatuta baitago.

Hala ere, udal aparejadoreak eskaeraren aurkako txostena egin du, lokalak ez duelako Arau Subsidiarioen 075. artikuluan (2. paragrafoan) eskatzen den gutxieneko azalera, hau da, 40 m².

Salbuespen bezala, onartu izan da jarduera hori gutxieneko azalera ez zuten lokaletan, ibilgailu bat baino gehiago sar zitezkeela egiaztatu den kasuetan, maniobrak egiteko bata besteari inolako trabarik egin gabe. Baina kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen, lokalaren zabalera lau metrokoa baita beti.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Florentino Entenza Lobeira jn.ari instalazio-lizentzia ukatzea, Salinas,6-behea ezk.an dagoen lokalean ibilgailuen gordeleku jarduerarako, lokalak ez duelako araudiak eskatzen duen gutxieneko azalera.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren, kontuan hartuta jarduera kaltegabea jarri nahi duen lokalak 40 m² baino gutxiago dituela.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

20.- "Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua" obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: ""Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua""

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) y D. Jose Mari Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA LAROGETA HIRU ZENTIMO (36.817,83 euros).



Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 Disposamenduaren kargura.

21.- "Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua" obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2

Obra: "Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua"

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) y D. Jose Mari Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAIIKA MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (31.749,65 euros).

Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 Disposamenduaren kargura.

22.- "Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren" obraren 7. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 7

Obra: "Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza"

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HAMASEI MILA SEIEHUN ETA LAROGEITA HAMABOST EURO ETA LAROGEITA HEMEZAZPI ZENTIMO (16.695,97 euros).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

23.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 8. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 8

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea "

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEI MILA ETA LAROGETA HAMALAU EURO ETA HOGETA HIRU ZENTIMO (20.094,23 euros).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

24.- "Molinao Errekaren urbanizazioaren I. fasea " obraren 1. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 1

Obra: " Molinao Errekaren urbanizazioaren I. fasea "

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGETA HEMEZAZPI MILA ETA HOGETA BEDERATZI EURO ETA LAROGETA HAMALAU ZENTIMO (37.029,94 euros).

Indarreango udal aurrekontuko D-1238/04 Disposamenduaren kargura.

25.- "Molinao Errekaren urbanizazioaren I. fasea " obraren 2. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2



Obra: " Molinao Errekaren urbanizazioaren I. fasea "

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA BOST EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (56.105,22 Euros).

Indarrengo udal aurrekontuko D-1238/04 Disposamenduaren kargura.

26.- Obra lizentzia: Hamarretxeta, 8.

TXEMA GONZALEZ RODRIGUEZ jaunak , Hamarretxeta 8 zk.ko jabekideen izenean, bertako eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen, 2004ko abenduaren 2an. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiaiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- TXEMA GONZALEZ RODRIGUEZ jaunari, Hamarretxeta 8 zk.ko jabekideen izenean, eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiaiko Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltatura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.

- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARREN.- Interesdunei akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

27.- Izotza egiteko industria-jarduera irekitzeko lizentzia eskaera Portu Eremuan.

JAIME TEJEDOR URANGA jn.ak, PASAIKO IZOTZA S.A.ren izenean, 2003-10-6an obra-lizentzia eskatu zuen izotz-fabrika birmoldatzeko, hozgailuak jartzeko eta obra zibila egiteko, San Pedroko kaiko portualdean arraina prozesatu eta izozteko jarduera dagoen eraikinean, Esnabide eta Markina Ingeniaria kaleak mugatzen dituen orubean. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENA.- Jaime Tejedor Urangari, PASAIA, S.A.ren izenean, jarduera-lizentzia ematea San Pedroko kaiko portualdean dagoen eraikinean arraina prozesatzeko eta izozteko jarduera jartzeko, ondorego badintzekin:

- a) Obrak hasi aurretik:

Jardueraren soinu-igorpenei buruzko proposamena aurkeztu behar dute, eraikin osoarena, Pasaiako AASSen ondoko artikulua betetzen dituen:

“216. Artikulua. KARGA ETA DESKARGARI BURUZ (ZARATAK).

Merkantzien karga eta deskarga eta kaxa, edukiontzi, eraikuntzazko material eta antzeko objetuen maneiaketa guztiz debekatuta dago 22etatik biharamuneko 7ak arte, zabor bilketa eta jakien banaketa salbuetsirik. Lanaldiaren gainontzeko orduetan, lan horiek ahalik eta arretarik haundienaz burutu beharko dira molestiak gutxitu eta behar diren tara soilik murrizteko.

Edozein kasutan ere, 218. artikulua aurrikusitako gehieneko zarata mailak jarraitu beharko dira.

Beharrezkoa izanez gero, behar diren neurri zuzentzaileak hartuko dira edo zehaztutako ordutegiari lotu.

217. Artikulua. ZARATAK EDOTA BIBRADURAK SORTARAZ DITZAKETEN MAKINAK ETA APARAILUAK.

Makinak eta instalazio finko nahiz mugikorrek ezin izango dira, zaratak edota bibradurak sortaraziz gero, eraikinetako mehelin, sapai, forjatu eta egiturazko ezein elementuren gainean ezarri.

Beren instalazioa basamentu edo bibraduren aurka propio jarritako elementuen gainean egin beharko da, eta beren egokitasun teknikoaren dokumentazioan justifikatu ere bai.

Erregimen bortxatuzko jario, aireztapen, klimatizazio eta aire konprimituaren desplazamendurako hodi eta ekipamenduak elementu elastikoak erabiliz eutsiko dira egituran. Tutu edo hoditeriekiko konekzioak ere lotura edo dispositibo elastikoz egingo da.

Arreta deitzeko sistemak, hala nola, sirenak, alarmak, etab., premiazko egoeretan baino ezin izango dira erabili (lapurketa dela, sutea dela, e.a...).

218. Artikulua. ZARATA MAILAK.

Gune hartzailea	Maila sonoroa kanp. (db) Leq 1		Maila sonoroa barru. (db). Leq 1	
	EGUNEZ	GAUEZ	EGUNEZ	GAUEZ
Denak, industrialak izan ezik	55	45	30 (logelan) 35 (beste gelabatzaletan) 30	25
Industrialak	65	60	40	35

DB (A)-tan adierazitako mailak.

22etatik biharamuneko 8ak arte doan aldia hartzen da gauralditzat.

219. Artikulua. GEHIENEZKO BIBRADURA MAILAK.

Gune hartzailea	Maila sonoroa kanp. (db) punta-puntan	Maila sonoroa barru. (db) punta-puntan

	EGUNEZ		GAUEZ	
Denak, industrialala izan ezik	60	55	40 (logelan) 45 (beste gela batzuetan) 40	25
Industrialala	75	70	50	45

DB (A)-tan adierazitako mailak.

22etatik biharamuneko 8ak arte doan aldia hartzen da gauralditzat.

- b) Zehaztu egingo da jarduerak itsasora edo atmosferara egingo dituen isuriak, halakorik izango bada behintzat.
- c) Gainontzeko baldintzak honako hauek dira:
- Lokalera sartzeko ate guztiak kanporantz irekiko dira eta irekitzerakoan ez dute jabari publikoa hartuko, hau da, fatxada-lerroaren barruan egongo dira.
 - Barruko ate** guztiek irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legean eta 68/2000 Dekretuan ezarritakoa beteko dute, eta 0,80 m-ko zabalera librea izango dute; **kanpoko ateeak**, aldiz, 0,90 m-koa.
 - Lokalak 2,80 m-ko **altuera librea** izango du jendea egoteko tokietan eta 2,25 m-koa komunetan eta biltegian.
 - Sukalde eta komunetan, paramentu horizontal eta bertikalen arteko loturak ahurrak izango dira.
 - Fatxadara ematen duten aireztatzeko saretxoek espaloia-aren sestratik edo bide publikotik, gutxienez, hiru metrora egon behar dute, bizilagun eta oinezkoei enbarazurik egin gabe.
- Fatxadako saretxoak aire egokituaren botatze- eta hartze-sistamarako bakarrik erabiliko dira, eta komun eta gune publikoaren aire biziataua ateratzeko edo berriztatzeko, edo instalazio-geletatik beroa atera arazteko.
- Sukalde eta galdarako aire biziataua, gas eta keak eraikinaren barrutik, horretarako berezia den hodi bidez aterako dira, harik eta estalkia gaintzen duten arte, eta bizilagunei inolako zarata, usain, bibrazio edo transmisio termikorik sortu gabe.
- Instalazio hau behe tentsioko Elektronika-arauegian jasotzen dena betez egingo da. Horretaz gain, gai honekin bat datorren arautegia bete beharko da.
 - Halaber, UOOOen 218. artikuluan soinu-mailari buruz adierazten dena bete behar dute: batetik, minutu batean Leq-en maila jarraiari dagokionez, 22ak bitarte ezin dira 30 dB(A) gaintu eta goizeko 8ak arte ezin dira 25dB(A) gaintu; eta bestetik, logela, sukalde eta egongelatako punta-puntako gehiengo balioetan ezin dira 40 dB(A) gaintu 8etatik aurrera ez eta 25 dB(A) ere 22etatik aurrera. **Neurketa hori egiten denean udal teknikaria bertan egotea eskatuko dute.**



8. Obrak egin ondoren, udalari guztia ikuskatzeko eskatuko diote; eskaerari erantsita ondoko agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Homologatutako enpresa batek egindako neurketei buruzko txosten teknikoa, dagokion teknikari eta elkargoak ikus-onetsia.
- Instalazio elektrikoaren ziurgatiria (lotura-buletina), Eusko Jaurlaritzako Industria ordezkariak baimendua.
- Obra amaierako ziurtagiria, dagokion teknikari eta elkargoak ikus-onetsia, behin betiko planoekin, hala badagokio.
- Obren azken kostuaren likidazioa.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10,45etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.